

Galdera finalisten lehenestea.

Trantsizio teknologikoa.

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Aurrekariak eta galdera finalistak
3. Galderen lehenesta eta justifikazioa
4. Ondorioak

Sarrera

Ongi etorri! Trantsizio teknologikoari buruzko galderen inguruan egindako bigarren galdategi-txandako emaitzen txostena aurkezten dizugu. Guztira 7 pertsonak elikatu dituzue txostenean agertzen diren emaitzak. Eskerrak eman nahi dizkizugu ariketari eskainitako denboragatik, zuen dedikazioa funtsezkoa izan da honaino iristeko.

Dokumentu honek bi helburu ditu:

- **Inkesten bigarren txandako emaitzak itzultzea.** Zuen interesari eta, batez ere, Gi2030 prozesuaren hurrengo faseetan landuko diren galderak ebaluatzen, fintzen eta hautatzen eman duzuen denborari aitortza egiten diogu itzulketa honen bidez.
- **Gi2030 prozesuaren zehaztasun guztiak jasotzea.** Hurrengo faseetara igaroko diren galderen hautaketa prozesuaren momentu zentrala da, eta, horregatik, hautaketa-ariketa honi buruzko informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasotzea oso garrantzitsua da.

Jarraian, emaitzen laburpen orokor bat erakutsiko dizuegu. Ondorengo ataletan, banan-banan sakonduko dugu prozesuan zehar landutako galderei emandako balorazioan, haien justifikaziorekin batera.

Aurrekariak eta galdera finalistak.

Aurreko galdetegi-txandetan sei galdera aukeratu ziren bigarren galdetegi honetan lantzeko, hiru teknologiaren kudeaketa publikoaren arloan, eta hiru teknologiak desberdintasunetan duen eraginen inguruan. Jarraian, landutako sei galderak aurkeztuko ditugu. Gi2030 prozesuaren laugarren fasera igarotzeko hautatuak izan diren bi galderak laranja markatuta ikusiko dituzu.

1 Gaia. Teknologiaren kudeaketa publikoa

- **1. Galdera ▶▶ Nola egokitu behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiko botere legegileak eta administrazio publikoak teknologiak eragindako aldaketa bizkorretara?**
- **2. Galdera ▶▶** Zer egin dezakegu Foru Aldundia mailan, ikerketa- eta berrikuntza-programak eta -ekimenak gizarte-premiekin lerrokatzeko?
- **3. Galdera ▶▶** Zer administrazioek eta zer tresnarekin kontrolatuko ditu teknologia berri horiek garatzen eta aplikatzen dituztenak?

2 Gaia. Teknologiaren inpaktua desberdintasunetan

- **1. Galdera ▶▶** Zer teknologia motak lagunduko lioke berdintasunezko gizarte bati?
- **2. Galdera ▶▶ Nola susta daiteke teknologia guztion zerbitzura egotea?**


- **3. Galdera** ▶ Nola txertatzen dituzte Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Planak eta plan honen esparruan garatutako proiektuek gizarte-erronkei erantzuteko gaiak?

Galderen lehenestea eta justifikazioa.

Gogoratzen baduzu, uztailen bete zenuen galdetegian aurreko inkestan hautatutako sei galderak garrantziaren arabera ordenatzeko eskatzen genizun. Zehazki, Gi2030 prozesuan aurrera egiteko esanguratsuen iruditzen zitzaizun galdera lehen postuan jartzea eskatzen genizun, eta, hirugarren postuan, zuretzako garrantzi gutxien zuena. Hiru galdera teknologiaren kudeaketa publikoari buruzkoak ziren, eta beste hiru teknologiak desberdintasunetan duen eraginari buruzkoak. Jarraian, lehenespen-ariketa horretatik ondorioztatzen diren emaitzak eta emandako justifikazioa aurkeztuko ditugu.

1. Gaia: Teknologiaren kudeaketa publikoa

1. Grafikoa. Galderen ranking-a batez bestekoen arabera, 1= baloratuena eta 3= gutxien baloratuena izanik.



Galderei emandako ordenaren arabera hobekien kokatutako galdera **1. Galdera ►► Nola egokitu behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiko botere legegileak eta administrazio publikoak teknologiak eragindako aldaketa bizkorretara?** izan da. 7 parte-hartzailetik 4k lehenengo tokian jartzea erabaki zuten. Partaide batzuen arabera, Aldundiak baditu gai horri aurre egiteko eskumenak ("Ordenak zerikusia du Aldundiak planteatutako gaietan dituen eskumenekin"), eta, antzeko ildoan, galdera bigarren tokian jarri zuen parte-hartzaile batek galdera "eraginkorragoa" dela argudiatu zuen. Modu garrantzitsuan, parte-hartzaile batzuek galdera honen aukeraketa justifikatu zuten garrantzi handikoa zela iritzita. Zehazki, adierazi zuten teknologiak azkar egiten duela aurrera, eta, beraz, aldaketa teknologikoetara egokitzea funtsezkoa dela. Zenzu honetan garrantzitsutzat jo zuten Aldundiak teknologia horiek bere gain hartzea eta teknologia berrien garapenean eragiteko gaitasuna izatea ("Lehenengo galdera oinarritzkoa da, alegia, gobernu-erakundeen egokitzeko gaitasuna"; "Uste dut teknologiak legegilea baino azkarrago egiten duela aurrera, eta, beraz, aldaketetara egokitzea mantentzen dut lehen galdera bezala").


Bigarren postuan geratutako galdera **2. Galdera ►► Zer egin dezakegu Foru Aldundia mailan, ikerketa- eta berrikuntza-programak eta -ekimenak gizarte-premiekin lerrokatzeko?** izan da. Batez besteko posizioaz haratago, galderei esleitutako ordenaren banaketak ñabardura garrantzitsuak eskaintzen ditu: parte-hartzaile batek azken postuan jarri zuen, hiruk bigarreanean eta hiruk lehenengoan. Lehen postuan jartzea erabaki zutenen artean batek argudiatu zuen "administrazio publikoaren azken helburua gizartearen beharrei erantzutea" izan behar dela, eta, beraz, "premia horiekin bat egitea izan behar da lehentasun osoa". Beste parte-hartzaile baten oso antzeko ideia planteatu zuen: "programak eta ekimenak gizartearen beharrekin bat ez badatoz, zaila izango da eraldaketa lortzea. Uste dut hau dela helburu orokorra. Teknologia izan daiteke hori lortzeko moduetako bat". Neurri batean, galdera honek lehenengoaren edukia zehazten du, eta hain zuzen ere argudio hau ematen dute partaide batzuek beraien aukeraketa justifikatzeko. Galdera bigarren tokian kokatu duen

inkestatu batek hala egin du galdera hau "lehenengoaren ondorioa" delako. Beste batek Aldundiak landutako gaietan dituen eskumenetara jo du galderari emandako garrantzia justifikatzeko. Galdera hau bigarren aukera gisa ere kokatzen duen parte-hartzaile batek estrategikoak izatea iradokitzen du, eta ikerketaren eta berrikuntzaren arloko finantzaketari ahalik eta etekinik handiena nola atera pentsatzea, bere hitzetan, "nola gerturatu nork bere opilari ikatza? (...) I+i-ren zati bat finantzatzen dugunez, nola egin Gipuzkoako beharrei erantzuteko".

Azkenik, hirugarren postuan utzitzako galdera **3. Galdera ►► Zer administraziok eta zer tresnarekin kontrolatuko ditu teknologia berri horiek garatzen eta aplikatzen dituztenak?** Garrantzi gutxien jaso duen galdera izan da: 6 parte-hartzailek kokatu zuten galdera posizio honetan, eta batek bigarren postuan. Hirugarren postuan jarri zuten parte-hartzaileen artean, batek esan zuen galdera "teknologia berrien garapenean eragiteko gaitasunari" buruzkoa dela, eta gai horri buruz Aldundiak ezer gutxi duela egiteko: "Aldundiak sustapen ekonomikoaren duen zeregina eta, bereziki, bikaintasuneko teknologia bultzatzeari dagokionez, mugatua da".

2. Gaia. Teknologiaren inpaktua desberdintasunetan

2. Grafikoa. Galderen ranking-a batez bestekoen arabera, 1= baloratuena eta 3= gutxien baloratuena izanik.



Lehenengo postuan kokatutako galdera, eta, beraz, gai honen baitan hautatua izan dena, **2. Galdera ► Nola susta daiteke teknologia guztion zerbitzura egotea?** izan da. Laburbilduz, parte-hartzaileek azpimarratu dute teknologia berdintasunezko gizarte baten zerbitzura jartzerakoan, galdera honek duen garrantzi soziala. Bigarren galdera hau beste bi galderak lortzeko baldintzatatzat jotzen da

("Teknologia funtsezko faktorea izango da gizartearentzat eta guztion eskura egotea beharrezkoa da. Funtsezko alderdi bat berdintasunezko gizartea izaten laguntzea da, beraz, bigarrena lehenengoaren baldintzetako bat da"). Era berean, beste ekarpen batzuek galdera honi eman diote garrantzi gehien, "zeharkakoa" delako eta "marko orokor bat" ezartzeko gaitasuna duelako. Galdera bigarren postuan jarri zuen parte-hartzaile batek ere antzeko argudio bat azaldu zuen: "Garrantzitsua da garatzen diren teknologien onurak ahalik eta zeharkakoenak izatea, berdintasunezko gizarte bidezkoago bat lortzen lagunduz, eta, beraz, lehentasuneko bigarren irizpidea izango litzateke niretzat".

Bigarren posizioa **3. Galdera ► Nola txertatzen dituzte Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Planak eta plan honen esparruan garatutako proiektuek gizarte-erronkei erantzuteko gaiak?** galderarentzako da. Hiru parte-hartzailek lehenengo lekuan jartzea erabaki zuten, eta Plan honen zentraltasun estrategikoarekin eta gainerako galdera honek gainerakoekin duen loturarekin lotutako argudioak mobilizatu zituzten. Inkestatu batek azaldu zuenez, "zientzia eta teknologia planak herrialdeak garapen berrien inguruan duen estrategia markatzen du, eta, beraz, administrazioaren funtsezko tresna da eremu horretan". Hala, beste parte-hartzaile batek honako hau adierazi zuen: "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako plan gizarte-erronkekin bat badator, bertan [Planean] gogoeta bat egon beharko litzateke jarraian aipatzen diren bi galderari erantzuteko", hau da, 1. galderari erantzuteko, berdintasunezko gizarte baterako lagunduko luketen teknologia-motei buruzkoa, eta 2. galderari erantzuteko, guztion zerbitzura egongo den teknologia sustatzeari buruzkoa. Ikuspegi horretatik, Plana galderaren erdigunean jarrita, berdintasuna kontuan hartzen duen teknologiarekin lotutako gai guztiak txertatuko lirateke. Hala ere, ideia honen aurrean ez dago adostasunik: galdera hau hirugarren postuan jarri duen

parte-hartzaile batek deritzo 2. galderak bai ezartzen duela marko orokor bat ezartzen duela; eta galdera honek, ordea, "tokiko esparru zehatz batean" kokatzen gaituela.

1. Galdera ▶▶ Zer teknologia motak lagunduko liokete berdintasunezko gizarte bati? izan da batez besteko balorazio txarrena jaso duena. Aurkeztutako zenbait justifikaziok adierazten dute 2. galderaren mendekoa dela, alegia, guztion zerbitzura dagoen teknologia sustatzeari buruzko galderarena: parte-hartzaile batek adierazi du honen baldintzapean dagoela, eta beste batek, 2. galderak "marko orokor bat" eskaintzen duen bitartean honek "marko zehatzagoa" ezartzen duela. Beste parte-hartzaile batek antzeko iritzia du: 2. galdera "zeharkakoa" da. Galdera honek, berriz, berdintasunezko teknologiaren helburua egikaritutako luketen "tresnei" eta "baliabideei" buruz hitz egiten du. Hala ere, inkestatu batek ez daki zeintzuk izango liratekeen tresna horiek, eta kezka honek galdera hau azken tokian uztera bultzatzen du: "ez daukat oso argi zeintzuk izango liratekeen berdintasunari hobekien lagunduko lioketen teknologiak, eta, beraz, nire ustez, gai hau kontutan hartzeko hirugarrena izango litzateke".

Ondorioak.

Emandako balorazio eta justifikazioetan oinarrituta, galdera multzo bakoitzerako honako ondorio hauek atera daitezke:

1 Gaia. Teknologiaren kudeaketa publikoa

- **1. Galdera** ►► Nola egokitu behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiko botere legegileak eta administrazio publikoak teknologiak eragindako aldaketa bizkorretara?, 7tik 4 inkestatur eman zioten lehentasuna. Haren garrantzia nabarmendu zen Aldundiak garapen teknologikora egokitu eta gai honetan eragina izan behar duelako.
- **2. Galdera** ►► Zer egin dezakegu Foru Aldundia mailan, ikerketa- eta berrikuntza-programak eta -ekimenak gizarte-premiekin lerrokatzeko?, esleitutako posizioetan banaketa orekatuagoa lortu zuen, eta teknologia gizarte-premiekin lerrokatzeko eta eraldaketa sustatzeko duen ikuspegiagatik baloratu zen.
- **3. Galdera** ►► Zer administrazioek eta zer tresnarekin kontrolatuko ditu teknologia berri horiek garatzen eta aplikatzen dituztenak?, gutxien baloratuena izan zen. Argudiatu zen Aldundiak eskumen mugatuak dituela garapen teknologikoan eragiteko gaitasunean, eta honek galdera hau hirugarren postuan jartzera eramane zuen.

2 Gaia. Teknologiaren inpaktua desberdintasunetan

- **2. Galdera** ►► Nola susta daiteke teknologia guztion zerbitzura egotea?, lehenengo postuan geratu zen, gizarte osoarentzat teknologia eskuragarria eta bidezkoa sustatzeko duen garrantziagatik.

- **3. Galdera** ▶▶ Nola txertatzen dituzte Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Planak eta plan honen esparruan garatutako proiektuek gizarte-erronkei erantzuteko gaiak? bigarren tokian kokatu zen. Galderak duen zentralitate estrategikoa eta gainerako galderekin duen lotura azpimarratu zen.
- **1. Galdera** ▶▶ Zer teknologia motak lagunduko lioke berdintasunezko gizarte bati?, batez-besteko balorazio baxuena jaso zuen. Argudiatu zen galdera hau 2. Galderaren menpe dagoela, eta marko zehatzago bat ezartzen zuela, hirugarren postuan kokatuz.

Laburbilduz, bi gaietan kudeaketa publikoa aldaketa teknologikoetara egokitzeko garrantzia, eta teknologia berdintasun soziala sustatzeko erabiliko dela ziurtatzearen garrantzia azpimarratzen da. Gainera, ikerketa eta berrikuntza gizarte-premiekin lerrokatzeko beharra nabarmentzen da, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Planak gizarte-erronkei nola hel diezaiekeen kontuan hartzeko beharra.